

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK APARKATZE MUGATU ETA MURRIZTUKO EREMUETAN APARKATZEKO TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

22. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua. Hona zerga-egitatea: aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuetan ibilgailua aparkatzea, Aparkatze Mugatuko eta Murriztuko Eremuak arautzen dituen Ordenantzarekin eta bertan jasotako zehaztapenekin bat.

Ez dituzte tasa hauek ordainduko aparkatze mugatu eta murriztuko eremuetako aparkatze-muga eta murrizketatik salbuetsita dauden 0 isurketako ibilgailu elektrikoek, zeinak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren bereizgarri ofizialen bidez identifikatuko baitira.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua. Txartela jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoen zein juridikoen kasuan, zerga ordaintzeko betebeharra sortzen da aipatutako txartela eskuratzeko eskubidea aurkezten denean –hura izapidetzeko ezinbestekoa izanen baita aurretik dagokion tasa ordaintzea–, eta aparkatze mugatuaren erabilera pribatiboa hastean.

Nork ordaindu behar

4. artikulua. Tasa, honako hauek ordaindu behar dute:

a) Ibilgailuaren titularra den pertsona fisikoa, baldin eta helbidea MUG eta MUR eremuetako sektore batean badu, bizilagun dela egiaztatzen duen txartela eskuratzearen truke.

b) Ibilgailuaren titularra den pertsona fisikoa nahiz juridikoa, baldin eta zerga-egoitza alde laranja duen sektore jakin batean badu, jarduera profesionala, merkataritzakoa, industriakoa edo zerbitzuetakoa betetzen duela egiaztatzen duen txartela eskuratzearen truke.

c) MUG eremuetan aparkatzen duten gidariak, aparkatze mugatuak zenbat dirauen eta hainbeste, arauturiko ordutegiaren baitan, eta aparkatzeko gaitzen duen tiketa erretiratu ondoren.

5. artikulua.- 1) Bizilagun-txartela edo jarduera profesionala, merkataritzakoa, industriakoa edo zerbitzuetakoa betetzen duela ziurtatzen duen txartela eskuratzeko urteroko tasak hilabete naturaletan hainbanatzen ahalko dira, baldin eta baimendutako epea urtebetekoa baino txikiagoa bada; kasu horretan, tasa urtea amaitzeko geratzen diren hilabete-kopuruaren arabera kalkulatu da, txartela noiz eskatu eta hilabete hori kenduta.

2) Baldin eta txartelak erabiltzeko baldintzak betetzeari utzi diotenen txartelak entregatzen badituzte, ordaindutako tasa hainbanatzen ahalko da, 3. puntuko salbuespenak salbu, urtea bukatu arte gelditzen diren hilabete natural eta osoen proportzioan hainbanatu ere, eta, horrenbestez, txartela noiz entregatu eta hilabete hori kontuan hartu gabe.

3) Ez da inongo itzulketarik egingen, organo eskudun baten ebazpenaren bidez txartela baliogabetzen edo erretiratzen bada, betiere txartelaren jabeak txartela edukitzeko eskubidea galtzen badu.

6. artikulua.- Lehen txartelaz gain urte berean ematen den txartel bakoitzarengatik ordaindu beharreko tasak, Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako kutxan ordainduko dira.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- BIZILAGUN-IZAERA ZIURTATZEN DUTEN TXARTELAK:	
1.- Urte natural baterako emandako txartel bakoitzeko (MUR)	49,30 euro
- Urte natural baterako emandako txartel bakoitzeko (MUG)	49,30 euro
1.- 1. sektorean (Alde Zaharra) urte natural baterako emandako txartel bakoitzeko (MUR eta/edo MUG)	39,45 euro
2.- Txartela galtzeagatik, ibilgailua aldatzeagatik, eremuz aldatzeagatik edo beste edozein zioarengatik lehenengoaz gain eman beharreko txartel bakoitzeko	6,55 euro

II. EPIGRAFEA.- JARDUERA PROFESIONALA, MERKATARITZAKOA, INDUSTRIAKOA NAHIZ ZERBITZUETAKOA BETETZEN DELA EGIAZTATZEN DUTEN TXARTELAK:	
1.- Urte natural baterako emandako txartel bakoitzeko	204,00 euro
2.- Txartela galtzeagatik, ibilgailua aldatzeagatik, eremuz aldatzeagatik edo beste edozer ziorengatik lehenengoaz gain eman beharreko txartel bakoitzeko	6,55 euro

III. EPIGRAFEA.- MUG EREMUETAN APARKATZEA:	
1.- 10 minutu bitarte	0,30 euro
2.- 10 minututik gora, 3 minutuko zatiki bakoitzeko, gehienez, 120 minutu bitarte	0,05 euro
3.- Alde laranjan 120 minututik gora, 10 minutuko zatiki bakoitzeko eta ordu-mugarik gabe	0,05 euro
4.- Ordaindu osteko tarifa (salaketak baliogabetzeko)	
- 4.1. Ordaindu osteko tarifa, aparkatokian tiketean adierazitako denbora baino gehiago emateko	4,05 euro
- 4.2. Ordaindu osteko tarifa, aparkatokian ordaindutako denboraren bikoitza emateko	11,85 euro
- 4.3. Ordaindu osteko tarifa, aparkatzeko gaitzen duen tiketik edo indarreko bizilagun-txartelik gabe	11,85 euro
5.- Merkataritza-txanpona (gehienez 120 minutu)	1,05 euro